

Argazkiak: GAIZKA IROZ

rokkak

arte aretoan
eskulturak
ertain edo

n
k
e-
st
k
u-
ra
e-
ca
n-
u-
k
a-
z
a
a
k,
la
e-
a
n

asuna kontzeptua
era esango nuke:
beraren inguruan
dugula guztiok»



hea eta goia lotzen dituen hari hori agertzen denean, egonezin existentzial guztiak desagertu egiten dira». Adibideak ematen hasi eta hamaika eman ditu. «Azken 50 urteotan, gure herrian, zenbait jende herriaren borrokan aritu dira. Guztiak apurtuta, zatituta, minduta agertu dira, edo bukatu dute. Baina haietako batzuek, borroka horretan, haria ikusi zuten. Eta haientzat, borrokkak zentzua hartu du; nahiz eta irabazi ez. Haria ikusi ostean ezin delako beste era batera izan». Haria baldin badago bizitzak funtzionatzen duela dio.

Formak nonahi

Zigorren mundua formaz osatua dago. Hala ikusten du berak guztia: forma itxuran. Hitz batzuk formak dira berarentzat; begirada batzuk; pentsamendu batzuk; itzalak... «Formak modu sinplean agertzen zaizkit. Nahi gabe. Ez ditut nik bilatzen. Forma itxuran ikusten dut guztia; bizia bera. Batzuetan, nahiko nuke formatatik aldentzea, baina ezin dut. Hala bizi naiz. Bizimodu bat da».

Formek lotzen dute eskultore hau. Eta loturak ardatz dituela eraikitzen ditu forma gehienak. «Txorien hegalak lotura txiki-txikiz daude gorputzari itsatsiak. Eta ikusi zein indartsuak diren». Bikoteen arteko loturak ere sarri landu ditu egile honek. Ordea, loturekin batera, askatasunak, harremanek, zalantzaren munduak, hegaztiak, munduak berak badute garrantzia. Bere eskultura barnekoia dela dio Zigorrek.

Bere lana euskal artea da. Euskal Herrian bizi delako Akixo, eta bertatik edaten duelako. «Nire herriari oso lotuta dagoen lana da nirea. Herriatik hornitzen naiz; ez, ordea, soilik zentzu geografikoan. Kulturari lotuta nago, arimari. Nire lana, bere osotasunean, nire herriari lotuta dago».

Bestalde, Zigorren eskulturak mugak gainditzeko saiok ere badira. Izan ere, euskaldunak bakanak eta unibertsalak gara era berean Zigorren. «Gure herria munduari oso lotuta dago; hainbat soka motarekin.



Euskaldunok mundua ezagutzen dugu, atzeriarekin loturak ditugu. Aitzitik, atzerrikoek ez gaituzte gu ezagutzen; edo ezagutzen gero, gutxi eta gaizki. Eta haien loturak txikiagoak dira gurekiko. Jakina, herri guztiak dira bakanak. Baina gure lanean bada guretasun handi bat, eta, hein berean, unibertsaltasun handi bat». Eta, hala, eskulturaz mintzo denean, berea «eskultura erraza» dela dio; ulerterraza. «Edonork, borondate ona izanez gero, uler dezake nire lana. Erraza da». Izan ere, gizon sentimental da Zigor. Baita bere lana ere. Poesiari lotutakoa askotan, gehienetan. «Bihotzaren eskultura egiten dut, ez arrazoiarena».

Gaztelari maitasuna 5

lax, Miarritzen izandako erakusketa batek, Kepa Akixo Zigor-en hainbat lan bildu zituen; bere ibilbidearen laburpen bat izan zen erakusketa, nolabait. Bertan, beste hainbat lanen artean, *Lau haizeak* eta *Hamaika hilabeteak* obrak ziren. Orain, bere lantegian du lan hori Zigor-ek. Tamaina handiko lana da, berezia; eta maitekiro hitz egiten du obrari buruz. Izan ere, filosofia oso bat gordetzen du lan horrek bere baitan; egileak sortutako mitologia moduko bat, nolabait. Lau atek lau ertzetatik datozen haizeak gordetzen dituzte: iparretik, hegotik, ekialdetik eta mendebaldetik datozenak —mundua sinbolizatzen dute—. Eta, munduaren erdian, hamaika hilabete daude; hamaika gizon gaztelar. «Hilabete horiek erdalduak dira. Gaztelako gizonak dira: beltzak, lehorrak, serioak eta luzeak dira. Grecoren mundutik datozela dirudi. Edo Kixoteren mundutik. Gredos mendilerroaren inguruko jendea da irudikatutakoa», deskribatu du. Bere hamaika gizon horiek hilabete gogorrek dira, luzeak. Hamabigarren hilabetea falta da, ordea. «Ametserako erabiltzen dugun tartea da. Beraz, ezkutatu egin dut». Izan ere, bereziki maite du Gaztelari Zigor-ek. Eta filosofia oso bat sortu du maitasun horren inguruan. Horren arrazoa zein den ez daki, ordea; zergatiak asko izango dira akaso, bere esanetan. Koloreak, lehertasunak, bertako gogoetak eta abar maite ditu. «Bakartasun leku handiak dira Gaztelakoak, eta ni bakardadearen oso zalea naiz».

Gaztelaz mintzo denean, begiak handitu egiten zaizkio egileari. Herrialde hori mito bilakatu duela aitortu du berak. «Ziur aski, nik irudikatzen dudana baino makurragoa izango da. Baina mito bilakatu dut nik nire baitan. Eta, egia esan, hala nahi dut».

Poesiaz mintzo balitz bezala aritzen da halakoetan: «Gaztelan nintzela, nire aurretik gizon bat igaro zen, zaldia ondoan zeramala. Bere itzala nire

hamaika hilabeteak bezalakoa zen. Zurruna, isila, lehorra, beltza. Gero, ostatu batean mintzatzen bazara gizon horrekin, ez da batere espantuzkoa. Nik halakoa izan nahi nuke. Badira halako euskaldunak ere. Baina ez hainbeste». Eta, gure herrian hurbiletik bizi dugun gaiari eutsi dio: abertzaletasunari alegia. «Euskaldunok, gure kantu ugaritan, zein abertzaleak garen kantatzen dugu. Gaztelarrek ez dute kantatzen, baina abertzaleak dira, berezkoak, benetakoak. Ez dute, ordea, abertzaleak diren zentzurik; abertzaleak dira eta kito. Euskaldunok behar dugu zentzua; abertzaleak garela jakin behar dugu. Zaila da halakoak ozen esatea. Izan ere, badakit edozeinek ez lukeela ulertuko», aitortu du. ■